

# Armenia: genozidioa (1915-2015)

*Acaba de clausurarse el programa internacional de actos en memoria de lo que se ha llamado "primer genocidio del siglo XX", el del pueblo armenio, perpetrado con la organización de las autoridades turcas a partir de 1915. Se da por sentado que murió un millón y medio de armenios, unos fusilados y otros exterminados de hambre y sed y enfermedades por los campos perdidos del desierto, al tiempo que los supervivientes fugitivos pasaban al exilio de la diáspora.*

Gaurko Armeniako Errepublikan eta armeniarren mundu osoko diaspora handian gogoratua eta gogorazia izan da armeniarren kontrako genozidioaren mendeurrena (1915-2015): Turkiako agintarien plangintza hiltzaile eta nahasi batean burutu zen izugarrikeria hura, historialariek ongi frogatuta daukaten bezala.

**Zergatik herri bat "garbitu" nahi izan zuten** Jakina denez, Ekialde Hurbilean herri, kultura eta erlijio anitz bizi izan da elkarrekin milaka urtetan, eta gehienetan bizi-segurtasunik izan dute, krisialdi larriak ezagutu dituzten arren. Kristautasunak bere jaiotzatik izan zuen han bere lekua: gogoratu besterik ez dago Palestina, Siria, Kapadozia eta nahi bada Egipto ere. Kristautasunaren sehaska izan zen Ekialde Hurbila.

Bertako herrien artean, Armenia suertatu zen munduan ofizialki kristautu zen lehen herria (301), horrek ekarri zituen ondorio sozial eta kulturalekin. Armeniarrek beti gomutatu dute beren lehenengotasun hori. Beraz, Ekialde Hurbileko herri kristaua izan da Armenia, aipatutako genozidio aurretik batez ere Inperio turko-otomanoaren barruan, hor baitzegoen erroturik Armenia historikoa: etnikoa, kulturala, ekonomikoa, politikoa, erlijiosoa.

XIX. mendearen azken aldian oso ahuldu-

rik ageri zen Inperio hura Munduko I. Gerratean Alemania galtzailearekin lerrokatu zen, horrela jada bere baitan barruan zituen arazo politikoak are gehiago larriagotzen zituela. "Turkiar Gazteak" zeritzan mugimenduak eta gero alderdi politikoak ("Batasuna eta Aurre-rapena" zeritzanak) ordura arte nazio-anitza zen Inperioa erabat turkiartu nahi izan zuten, Estatu-nazio bakar turkiar bihurtu alegia.

1909-1918. urteetan eta berehala K. Atatürk-ekin (1919-1938), Turkia berriak bi helburu nagusi izan zituen: Estatu berrituari modernotasun "europar" bat ematea (kulturan, turkieraren idazkera latinoa, eta erlijio-alorrean, Estatuaren laizitatea), eta bigarren, Turkia berriaren batasun/bakartasun etniko-kulturala abiaraztea.

Turkiako gutxiengoaren artean zeuden, besteak beste, herri kristauak, eta hauen artean bereziki herri armeniarra, beronek zituen lorpen sozialak tartean zirela: ekonomian zuten lidergoa, komunitate intelektual bizkorra, eskola-sare propioa, Eliza nazionala, etab. Estatu turkiar nazionalaren aldeko ideologiak ezin izan zuten jasan halako herri aurrerazale kristaua, proiektu politiko berriaren barruan.

## **Genozidioaren obrantza eta ondorioak**

Sufritu behar izan zuten genozidio handienaren abiagune sinboliko eta praktikoa egun



jakin batean jarri izan dute armeniarrek: 1915eko apirilaren 24an. Hogei eta lautik hoge eta bosterako gau hartan gobernuaren aginduz eta poliziaren ekintzaz, ehunka armeniar atxilotu zituzten Istanbul hiriburuan: kazetari, idazle, irakasle, negozio-gizon, politikari, elizgizon eta abar. Plangintza handi baten lehen atarikoa izan zen hura.

Pauso pauso joan zen ondoko garbiketa: Udaletxeetara deitu eta tokian tokiko poliziak atxilotu zituen herritar hiriburuko armeniarrek: gizonetzko adinekoei "segurtasun" arrazoengatik dei egin zitzaizen; asko eta asko kamioietan eraman zituzten desertura, edo jaioteritik gertu bide bazterretan hiltzeko. Sendiak famili bururik gabe geratu ziren, *ez si* eta *ez no*. Maiatzean, armak kendu zizkieten armadako soldadu armeniarrei.

Hurrengo urrats larria, emakumei eta haurrei zegokiena izan zen: herri eta etxeetatik atera eta basamorturako bidean, noraezean, atzera eta aurrera eraman zituzten, taldeka, oinez, edateko edo jatekorik gabe edo halatsu. Gidatzaile armatuak inguratuta eraman zituzten, harik eta gaixotasunek tiroka edo ibairen batean ito zituzten arte (Eufrates ibaian, adibidez).

Diasporara ihes agin ahal izan zutenen ondoko historialari armeniarrek herriz herri eta egunegun zenbatu dituzte orduan hildakoak, eta hainbat aldiz baita hiltzaileen izenak jaso ere (Kevorkian). Gertakari izengabe haien memoria zaintzen sekulako lana egin du

mundu zabaleko diaspora armeniarrek, bereziki Frantzian eta Estatu Batuetan.

Alemaniak II. Mundu Gerratearen ondoren juduen Holokaustuagatik egindako damuaitorpena egiteko dago oraindik Estatu turkiarra. Egia da, berez eta beste gabe, ondoko belaunaldi turkiarrak ez direla orduko gertakarien erantzule, baina nazioarteko Zuzenbideak, bere garbitasunagatik, nahitaezkoa du halako gertakarien ondoko Estatuei kontuak eskatzea, kontuak eta kalte-ordainak, munduko Estatu-terrorismoari mugarik jarri nahi baldin bazaio, behintzat (gogora Ruanda, 1994; Srebrenica, 1995).

Mende bete gezur erein du Turkiako Estatuak eskoletan eta irakaskuntza ofizialean genozidioa ukatu eta ezkatatu nahirik, baina gero eta ugariago dira turkiarren artean ere gertatutakoaren aitorten leiala eskatzen dutenak. Jada nazioarteko Erakunde asko dira gertatutakoa "genozidiotzat" ezagutu dutenak, Eusko Legebiltzarra horien artean.

Genozidio hartan, erlijiotasunaren ezau-garria ere egon zen, bestelako arrazoen artean, eta ongi egongo da aldizkari honetan hori ere gogoraraztea, hain zuzen Ekialde Hurbileko kristau taldeak hain erasoak eta halako kinka estuan ikusten ditugun honetan. Berriz ere gerra politiko-erlijiosoetan gabiltza, izugarrikeria guztiak Jainkoaren izenean bedieinkatzeko arriskutan.

**Joseba Intxausti**